

## **MARTUTENE UHOLDEETATIK BABESTEKO OBREK ERASANDAKOEI BESTE BIZILEKU BAT EMATEKO ESKUBIDEA ORAINDIK ERE GAUZATU GABE IZATEA. KONTROL MOZIOA**

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udaltzaren Organo Araudiaren 134. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Martutene uholdeetatik babesteko obrek erasandakoei beste bizileku bat emateko eskubidea oraindik ere gauzatu gabe izatearen gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak irailaren 16an izan zuen bileran aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2014an, Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua abian jartzeko hartu ziren akordioen barruan, hitzarmen bat sinatu zen, besteak beste Martutene pasealekuko 57. zenbakiko etxebizitza erosteko.

Martutene uholdeetatik babesteko proiektuak etxebizitza hori erosteko beharra jasotzen zuen, hura eraitsi eta ibaiaren ibilgua zabaldu ahal izateko.

Hitzarmen horren bosgarren estipulazioak Morlans pasealekuko etxebizitzetan aldi baterako bizileku bat emateko eskubidea aurreikusten du, baita Txomiñenea LO.05, Antzita MA.01 eta Sarrueta MA.06 eremuetan eta Apostolutza MA.07.1 azpieremuetan dauden Udalaren titulartasuneko eta erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetako batean behin betiko bizilekua emateko eskubidea ere.

Hitzarmen horrek dioenez, etxebizitza jabetzan adjudikatuko da, eta trastelekua eta garajea ere izan beharko ditu.

Era berean, aipatutako hitzarmenak ezartzen duenez, aipatutako guztien artean ezarritako baldintza eta irizpideetara egokitzen den hirigintza-garapenean emango da beste bizileku bat. Eta jartzen du, orobat, Udalak jakinaren gainean edukiko dituela erasandakoak, bai hirigintza-garapen horietaz eta horietan aurreikusitako etxebizitzak gauzatzeko prozesuaz, bai eta aipatutako behin betiko bizilekua emateko egokiak diren etxebizitzaren eskuragarritasunaz ere.

Igaro den denbora igaro arren, oraindik ere eman gabe dago behin betiko bizileku hori, eta begi bistakoa den bezala –zenbat urte eta zenbat egoera pertsonal izan diren kontuan hartuta–, ziurgabetasuna eta kezka sortzen du horrek. Hori dela eta, lehenbailehen heldu behar zaio gaiari, erasandakoekin bildu eta informazio zehatza eman, lehen esan dugun hitzarmenak jartzen duen bezala.

Horren gainean galdetu, eta Hirigintza Jasangarriko zinegotzi ordezkariak erantzun zigun Udalak ez duela babes ofizialeko etxebizitzarik, eta, orduan, kontratuak agintzen duena halaxe

betetzeko, etxebizitza bat erosi beharko lukeela. Ez zuen beste ezer ere zehaztu horren gainean, ordea, eta ez zuen ez indarrean den erosketa-kontratua betetzeko eperik eman nahi izan, ez eta kontratu hori Loiolako Lorategi Hiriaren eragiketan bete zitekeen esan ere.

Hori dela eta, hauxe da nire **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio betetzeko Martutene pasealekuko 57. zenbakiko etxebizitzaren jabeek eta Udalak sinatutako hitzarmenean xedatutakoa, uholdeak prebenitzeko bota baitzuen URA agentziak esan dugun etxe hori.

2.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen biltzeko erasandako pertsonekin, eta aipatutako eskuratzeko-kontratua betetzeko epearen aurreikuspena azaltzeko haiei.

3.- Hirigintza Jasangarriaren Sailari eskatzen dio, orobat, gaia lehenesteko eta lehenbailehen behin betiko ebazteko eman behar dituen aginduak eta jarraibideak emateko.

Donostia, 2024ko irailaren 19a

**Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,**  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia